

# Jalgi hadi plazara!

Unitate honetan, kulturaren, eta, zehatzago, gustuko film, liburu eta musikaren inguruan jardungo dugu. Hona hemen ideia batzuk kulturari lotutako mundu honetan sakontzeko, euskara euskaltegitik kanpo erabiltzeko eta zure ikasprozesuan aurrera egiteko.

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Badakizkizu taldekideen gustuak musika, zinema eta literatura direla-eta, baina zein dira ondoko gelako ikaskideena? Gustu horien berri izateko, hauxe da gure proposamena: **ondoko gelako ikaskideei dituzten gustuen inguruko inkesta bat egitea**. Horretarako, jakina, aldez aurretik prestatu beharko duzue galderaz-zerrenda taldeka. Behin inkestak eginda, jasotako informazioa edota datuak ahoz laburtu ahal dizkiezue ikaskideei.
- ✓ Askotan, **liburuen nahiz diskoen aurkezpenak egiten dira liburu-dendetan eta bestelako kultura-guneetan. Animatu horietako batera joaten!** Behin ekitaldian parte hartuta, kontatu ikaskideei nolako esperientzia izan den.
- ✓ **Ba al da euskarazko filmik karteleran? Ez galdu aukera eta animatu ikusten!** Ondoren, kontatu ikaskideei nolako esperientzia izan den: pelikula gustatu zaizuen, nolako istorioa den, ondo ulertu duzuen...

### Internet aprobetxatuta

- ✓ Lan-unitatean zehar, behin baino gehiagotan aterako zaigu EITBek emititzen duen saio baten izena: **EITB kultura transit**. Unitatean zehar saio horretako bideo batzuk ikusteko aukera izango dugu. Saio horretan, bada sail bat, non kulturari lotutako hainbat pertsonak kultura-gomendioak egiten dituzten. **Zakura** du izena aipaturiko sailak. **Ikusi gomendio horietako batzuk eta, gustukoak izanez gero, bidali estekak ikaskideei, edota, nahi izanez gero, hartu apunteak eta kontatu ikaskideei zer gomendio entzun dituzuen.** Hona hemen, aipaturiko saioa on-line ikusteko esteka: [Hemen](#).
- ✓ **Ez ahaztu sarea dela egun kultura kontsumitzeko modurik errazena. Tresna hori aprobetxatuta, ez galdu euskal kulturaren murgiltzeko aukera!** Ziur, euskara azkarrago ikasteaz gain, oso interesgarriak irudituko zaizkizun eta aberastuko zaituzten makina bat proposamen topatuko dituzula. A!, behin sarean nabigatuta, eman ikaskideei jasotako informazio guztiaren berri: liburuak, kantariak, filmak, bertsoak...
- ✓ **Begiratu <https://alea.eus/> aldizkariko agenda atalean ea gustuko ekitaldirik aurkitzen duzuen:** kontzerturen bat, liburu baten aurkezpena, antzerki-emanaldiren bat... Hala izenez gero, **animatu eta zoazte elkarrekin kulturaz blaitzera!**